

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 38 pertsona gutxiago izan zen lanik gabe martxoan Nafarroan, eta orain 56.486 langabe daude guztira

-% 0,07ko jaitsiera da otsailarekin alderatuz

Martes, 02 de abril de 2013

Martxoaren amaieran 56.486 langabe zeuden erregistratuta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (NEZ) enplegu-agentzietan, hau da, -% 0,07 jaitsi da (38 pertsona) aurreko hilabetearekin alderatuz; orduan 56.524 pertsona zeuden lanik gabe, [NEZaren hileroko txostenaren arabera](#).



Barazkien laborantza mekanizatua.

Kontratazioari dagokionez, 15.980 kontratu erregistratu ziren NEZan, lantokia Nafarroan izanik. Hau da, 242 gehiago otsailarekin alderatuz.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-gerente M<sup>a</sup> Isabel García Malo langabezian izandako beherakada "positibotzat" jo du, "25 urtetik beherako taldean eta emakumeengan bereziki". Kontratazioko aldeko datuak ere aintzat hartu ditu; datu horiek % 1,64an igo dira.

**Enplegu-agentzien arabera**, langabezia **Lizarra** (-% 1,94), **Doneztebe** (-% 0,98), **Altsasu** (-% 0,96), **Iruña-Yamaguchi** (-% 0,77) eta **Iruña-Zabalgunen** (-% 0,27) jaitsi da eta honako leku hauetan igo: **Tutera** (% 1,04), **Tafalla** (% 0,75), **Agoitz** (% 0,25), **Lodosa** (% 0,25) eta **Iruña-Arrotxapean** (% 0,06).

**Sektore ekonomikoen arabera**, langabeziak behera egin du zerbitzuetan, 258 langabe gutxiago dago, bereziki osasun-jardueretan (93 pertsona), Administrazio Publikoan, defentsan, Gizarte Segurantzaren (53 pertsona) eta ostatu-zerbitzuetan (48 pertsona). Aitzitik, nekazaritza- eta arrantza-sektoreetan 103 pertsona gehiago dago lanik gabe, eta jarraian aurreko enplegurik gabeko sektorea.

**Sexuaren arabera**, 28.233 emakume daude lanik gabe, -% 0,5eko jaitsierarekin, eta 28.253 gizon, % 0,3ko igoerarekin aurreko hilabetearekin alderatuz; horrek adierazten du gizonen langabezia emakumeena baino handiagoa dela.

**Adin-taldearen arabera**, 25 urtetik beherako langabeen kopuruak -% 1,26 egin du behera; 5.710 dira orain, eta 25 urtetik gorako langabeziak, berriz, % 0,07 egin du gora otsailarekin alderatuz; hau da, 50.776 langabe

dago orain.

**Kontratazioa:** 15.980 kontratu erregistratu ziren NEZan 2013ko martxoan zehar, hots, 242 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz.

Erregistratutako 15.980 kontratuetatik, 1.036 mugagabeak izan ziren, hau da, erregistratutako kontratu guztien % 6,48.